

Jakina da imitazioz ikasten dugula barre egiten, ez garela umore-senarekin jaiotzen, umore-sena eskuratu egiten dela.

UMOREA HAUR LITERATURAN

Zertzelada batzuk

Mariasun Landa Etxebeste

Irudiak: Xabier Pérez Sánchez

Kulturan ikasten dugu zer gauzaz egin behar den barre. Eta horren ondorio gisa, era askotako umore-sena dago: toki batean barregarria denak ez

dauka graziazik beste batean. Horren zergatia da umorean zerikusi handia dutela testuinguruak, *a priori*ek. Esan dezagun literaturak asko baliatu duela



bizitzaren gorabehera traumatizatzailerak sendatzeko duen ahalmen hori, baltsamo bat balitz bezala erabili duela gaitasun hori, horixe baita umore-sen handia, zentzugabekeria jeniala duten obren jatorria, arindu nahi dugun sufrimendu handia dagoela haien azpian ezkutatua. Ez dut aurkitzen esaten dudana azaltzeko miresten dudan liburu bat baino adibide hoberik: Norman Lindsayren *Budin magikoa*.

Gau batean, Lehen Mundu Gerraren garaian, bereziki deprimitua zegoen Norman Lindsay (1879-1969) australiar marrazkilaria, eskultorea, idazlea eta filosofoa: beraren anaia bat borroka-zelaian erori zen. Gerrako lokatz- eta odol-irudi haiek uxatzeko, papera eta arkatza hartu zituen, eta hil baino urtebete lehenago gogoratuko zuen bezala, disparateak idazten hasi zen Bunyip Bluegum izeneko koala batez.

Halaxe atera zen kalera 1918an, *The Magic Pudding*, australiar haur-literaturako haur-obra bikaintzat eta klasikoentzat hartzen dena. Gaur egun australiar bat ez dago budinaren gorabeheren berri ez dakienik. Budin hori gozoa edo gazia izan daiteke, sagarrezkoa edo haragizkoa, zer nahi duen batek aukeratu, eta inoiz ez da urritzen, zati asko kentzen bazaizkio ere. Eta gainera badaki hizketan, eta besoak eta hankak dauzka, gizaki batek bezalaxe. Itsusia, zakarra, mutur-beltza, errespetugabea da, eta berarengandik jateko plazera eskaintzen dionaren adiskidea da huts-hutsik. Budinaren jabeak –Bill Barnacle marinela-ohia eta Sam Sawnoff haren pinguinoa– Bunyip Bluegum izeneko koala baten adiskideak egiten dira, zeinak mundua ezagutu nahi baitu, eta berekin elkartzera gonbidatzen dute. Budin-lapur batzuek budina lapurtu nahi dute, eta behin baino gehiagotan harrapatzen dute, baina harrapatzen duten aldi bakoitzean segituan itzuli behar dute, jipoi ederren truke. Istorioaren datu hauei erantsi behar zaie lau errazioetan zatitua dagoela, eta liburuaren heren bat baino gehiago bertsoetan idatzia dagoela.

Orain urte batzuk, Bilbon, ekitaldi batean parte hartu behar izan nuen apirilaren Zaren inguruan. Haurren liburuaren eguna zen, Andersenen jaiotzaren urteurrena. Lantegia hasi baino lehen, haurrekin, egile batek eta haren alabak elkarrekin idazten ari ziren umorezko nobela baten lehen kapitulua irakurri zuten. Interes handiz entzun nien. Aukera aproposa

zen jakiteko, inguratzen gintuzten hainbat adinetako neska-mutiletatik, zeinek barre egiten zuen eta nola. Nire ustez gag bat zegoenean, ez nion inori barre egiten aditzen, eta, aldiz, 4 edo 5 mutil koxkor bat algara batean hasi zen saltxitxa-zakurra izendatzen aditu zuenean... Gero errepikatu zuen, zenbait aldiz, ingurura begiratzuz, saltxitxa, saltxitxa... Inondik ere, eskuratu ez zuen taldearen konplizitatea bilatuz.

Beraz, barrea apetatsua, pertsonala eta besterenezina da. Ez gaitu denok bisitatzen, eta gutxiago ordu berean. Haur hark ez zituen lehenago inoiz loturik aditu beretzat oso arruntak ziren bi termino haiek: zakurra eta saltxitxa. Gianni Rodarik aipatzen digun bikote fantastikoaren antzera-edo. Semantikoki urrutikoak diren bi termino elkartzeak irudimena, sormena piztu lezake. Eta hortik, istorio bat sortu. Komikotasunaren ekoizpenean, sarritan, normalean elkartu ohi ez diren bi ideia konbinatzen dira. Barrearen ikusmolde horretan sorpresaren efektua hartu behar da gogoan. Inkongruentzia eta sorpresa esperientzia emozional eta kognitiboan oso estu lotuak dauden bi alderdi dira, baina beti ere giro ludiko batean baldin bada, jolas-giroan, zeren bestela inkongruentzia horrek berak egonezina, harrimena sor baitiezaioke haurrari.

Distortsioak ere, zerikusi handia du barrearekin, zentzugabekeriarekin.

Adibide ederra idan daiteke *Behiaren* testua. Haur baten idazketa-azterketa omen da, eta gai hau zeukan: “Deskriba ezazu ugaztun bat edo hegazti bat”. Halako inpaktua eragin zuen, non Parisko Museo Pedagogikoan baitago.

Azaldu behar dudana txoria hontza da. Hontzak egunez ez du ikusten, eta gaez satorra bainoitsuagoa da. Hontzaz nik ez dakit gauza handirik, eta, hortaz, aukeratuko dudana beste animalia batekin jarraituko dut: behia. Behia ugaztuna da. Sei alde ditu: eskuinekoa, ezkerrekoa, goikoa eta behekoa. Atzeko aldekoan isats bat dauka, eta hartatik zintzilik brotxa bat. Brotxa horrekin euliak uxatzen ditu, bestela esnera eroriko bailirateke. Buruak adarrak ateratzeko balio dio, eta, gainera, ahoak nonbait egon behar du. Adarrak borrokatzeko dira. Beheko aldean behiak esnea dauka. Jeitzi ahal izateko moduan dago ekipatua. Behia jeitzen denean, esnea

etortzen da eta ez da inoiz gelditzen. Nola moldatzen da behia? Ezin izan dut behin ere ulertu, baina esnea gero eta ugariago ateratzen da.

Behiaren senarra idia da. Idia ez da ugaztuna. Behiak asko jaten du, baina jaten duena bi aldiz jaten du, eta, hortaz, nahikoa badu. Goseak dagoenean marruka hasten da, eta ezer esaten ez duenean esan nahi du barrutik belarrez betea dagoela. Hankak lurreraino ailegatzen zaizkio. Behiak oso usaimen garatua du, eta, horregatik, behi bat oso urrutitik usain daiteke. Horregatik da hain garbia mendiko haizea.

Ikusten denez, hain disparate handiak dira, non testua zentzugabekiaren eredu ederra izan daiteke, *nonsense* hutsa.

Barrea eta zentzugabekeria haur-literaturan, baso trinkoa eta oparoa da eta merezi du leku honetara denbora gehiagorekin, seriotasun handiagoarekin itzultzea. Oraingo honetan, idatzitako ohar batzuk besterik ez ditut eskaini baina ziur nago pena merezi duela haur literaturako umoreaz seriotasunez hitz egitea.

www.mariasunlanda.net

